

**IDAZLE ESKOLAK antolatzen dituen modulu eta  
hitzaldietan parte hartzen duten bergararrentzako  
dirulaguntzen oinarriak  
2024-2025 IKASTURTEA**

### **1.- HELBURUA**

Diru-laguntza hauen xedea da IDAZLE ESKOLAK Bergarako UNEDen baitan antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan Bergarako bizilagunen parte hartzea bultzatzea.

### **2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Bergaran erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 12 hilabete lehenagotik.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharrak fiskaltan eta Gizarte Segurantzakoetan eta baita Udalarekin ere.

### **3.- FINANTZIAZIOA**

Bergarako Udalak 1.000 euro bideratuko ditu 2024-2025 ikasturteko modulu eta hitzaldietan parte hartzen duten herritarrei diruz laguntzeko.

### **4.- ESKAERAK**

Eskaerak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira. Eta Udalaren webgunean ([Bergarako Egoitza elektronikoa](#)) edo udaletxeko Arreta Zerbitzuan (BAZen) eskuratu daitekeen inprimakia erabili behar da.

Eskaerak aurkezteko epea: 2025eko irailaren 15era artekoa, egun hori barne (aurreko ikasturtean, irailetik abuztura, biak barne, parte hartutako modulu eta hitzaldietarako).

Eta ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
- Interesduna ez den beste pertsona batek aurkezten badu eskaria, ordezkaritza agiria ([F0136](#)) aurkeztuko da, eta horrekin batera interesdunaren eta eskatzailearen NANA, pasaporte edo bizileku-baimena. (ordezkaritza inprimakia)
- Matrikularen ordainagiria.
- Idazle Eskolaren ziurtagiria, ikastaroan parte hartu izana egiaztatuko duena.



- Eta %100eko laguntza lortu ahal izateko, horietaz gain, ikastaroa egin duen garaian:
  - langabezia egon dela ziurtatzen duen “Bizitza laborala” izeneko agiria edo
  - garai horretan ikaslea zela egiaztatuko duen agiria.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileek bere horretan onartzen dituztela oinarri hauetan ezarritako baldintzak.

Ez da beste dokumentazio motarik onartuko.

Bergarako Udalak jadanik edukiko balu eskatutako dokumenturen bat, diru-laguntzaren eskatzaileak ez luke aurkeztu beharrik izango, beti ere, eskaeran aurkeztu zireneko data eta organo edo bulegoa adierazten badira, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro dagokien prozedura bukatu zenetik.

Hala ere, dokumentua lortzea ezinezkoa balitz, organo eskudunak eskatu ahal izango du agiri hori aurkeztea, erabaki-proposamena egin aurretik.

## **5.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.**

Emango den gehienezko laguntza honakoa izango da:

- Ikastaroa egin duen garaian lanik gabe egonez gero edo ikaslea izanez gero, matrikula osoaren %100ekoa.
- Bestelako kasuetan, matrikula-kostu osoaren %75eko laguntza emango da.

Laguntzotarako aurreikusitako aurrekontua goian adierazitako gehienezko laguntzak emateko bestekoa ez balitz, eskari guztien artean proportzioan banatuko da.

## **6.- ERABAKIA**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Euskara departamentuak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.

Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Herritarren Udal Batzorde Informatzaileak diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari erabakia har dezan.

Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako diru-laguntzen informazioa udal iragarki taulan argitaratuko da.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean hartuko da erabakia.

Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

Udalak, Batzorde Informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.



## **7.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Diru-laguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.
- b) Diru-laguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.
- c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.
- d) Bergarako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste diru-laguntzen berri ematea.  
Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hau eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoan erabilera justifikatu aurretik.
- e) Jasotako diru-laguntza itzultzea, horretarako arrazoiren bat izango balitz.

## **8.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA**

Udalak erabakia hartutakoan diru-laguntzaren %100a ordainduko du.

## **9.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA**

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

## **10.- DIRU-LAGUNTZA ALDATZEA**

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

## **11.- DIRU-LAGUNTZA EZEZTATZEA**

Diru-laguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako diru-laguntza itzultzeko arrazoi izango dira:

- a) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Diru-laguntzaren helburua, osotasunean edo partzialki, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zurrizko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzen kontrol- eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzea edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- e) Oinarri hauetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.



Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

## **12.- OINARRI HAUEN INTERPRETAZIOA**

Oinarri hauen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu.

## **13.- ZUZENBIDE OSAGARRIA**

Oinarri hauetan espreski zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 legea, dirulaguntzei buruzkoa, lege hori garatzen duen erregelamendua, uztailaren 22ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, Bergarako Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra eta udal aurrekontuko araua aplikatuko dira.